

KANPO SANTUAN.



¡GORPUTZ ONA!

Arratsalde batian zan nere gertaera; nere biotzaren antzekoa, tristia. Goiz goizetikan senti erazo asten ziran samiñ batek, eta orlako naigabe bat datorkionian norbaiti, badiruri munduban ez dubela ezer arkiko miñ ura alaitukodubenik.

Egualdiya zegon illuna, nere artian, nere gogoan nastutzen ez nuen gauzik etzan, ainbeste pentsamentu, bateren jabe egiteko betik gabe, ¡eta zenbat oroitz ere bat batean! ¡A! Non nai jayotza, non nai eriotza, oyek ziran, beste zenbait gauzen artian.

¡Zér eziñ esan leike bi gauza oyen gañian! Zenbait gizon jakintsuk esan ditu zenbait gauza eder bi itz oyetaz; bañan orrenbesteren gañez arkitzen gera iñork sekulan ezer ere esan ez balu bezela. ¡A!... Arratsalde artan leku batera joan bearra genduen: gezurrik ez dan toki artara, danak bat diran lekura; aberats, beartsu, erne eta motel, danak bat gelditzen diran lekura. ¡Bai! itz batian ¡Lur santura! Biziyak maizago joan-etorri bat bear genduke egiñ alde artara; bañan ez oso maiz, zergatikan, baldin joango bagiñake egunero, oitu egingo giñake eta ez genduke aintzakotzat artuko. ¡Ain da gaiñtoa mundua!.....

Adiskide batzuekin gorputz bati lagundu bearra genduen. ¡Otza eta ikara datorkit orduko gertaera oroituta! Alderatu giñan soro zabal artara, etziran gurutze beltzak besterik ageri alde banatara. Gu isillik geunden, bañan gauz asko aditzendan isiltasun batean; illa aurretik zeraman zulo-gilleak. Ez genakagun nora begiratu, baizik genakazki-

gun geren begiyak mundutik gora; odeyak beltz beltzak zeuden, eudiya zekarten, ego aize zakarrak okertzen zituben arbolen adarrak, os-toak arroturik aidean eta estalirik gurutz pillaren gañak, eroriaz aben oñetan; illunpe artan argitzen ginduen Fedeak.

Ontan alderatu gera obira, belardi chiki baten gañetikan, belarraren tartian ageriaz lore eri-kolore dunak, sarjiñ eder oyetakuen gorritasun biziyaeren antzik ez dutenak, denbora baño lenago igarrak.

Zulo-gillea abiyatu da bere palakiñ alde batera eta bestera lurra botatzen, zuloa garbi geldi dediñ eudi tanto banaka batzubek asten dira, geren malkoakiñ nastu eta baturik, bi lagun alkartuko balirake bezela maiterik. Danak begira gaude kaja beltz arri, bañan geren go-goa Jainkoan, bere-gan izan dediñ gorputz otz arren jabe izantako anima. Zulo-gillea, soka baten laguntzan, abiyatzen zan gorputz ura jeïstera sekulako igaro bear zuben tokira, eta bat batean jo zuen ondoa, egiñaz alako ots legor bat be-bian, azaldubaz zan baño ere beltzago ango illuntasun ikaragarri artan. Orduban geren biotzak jasotzen genituen Zerura, eta belaunikaturik, egin genuben gizonak munduan egin lezakena ill batengatikan; gero banaka artu genuben eskuba bete lur banatuaz geren lagun arren gorputzaren gañean, zulo gilleak artu zuben bere achurra eta asi zan estalitzen guzia; eudi zapar aundia zertorren, eta zulo-gilleak eudiaren bustitasuna sentitu zubeneko esan zigun bere lanari utzi gabe eta isilltasun ura autsiaz: jáunak, ¡gorputz ona!... ¿Gorputz ona? eranzun nuen nik nere artian, zergatik esan zuben jakin gabe. Zulo-gillea bere lana iya bukatuban ari zan azkeneko lur aldiak botatzen, gizonari bere egitekoan ezagutzen zayon errestasun arrekini; bukatu zubenian beziñ laister achurra ta pala utzirik alde batian, *urrengo beste aldi baterako* (berak esan zuben bezela) abiya zan gurekiñ izketan igarri bazuben bezela lengo bi itz ayek jakin nai genuela zérgatik esan zituen.

—¡Gorputz ona!, berriz ere; bai, jáunak—esan zigun bigarren aldiz-eudia asten dubenian, eta gorputz bat orduban obiratzen danian esaten degu beti dala, gorputz ona; ori da guk degun antzi-antziñako esaera bat.

Jaunari nai dakiyola—eranzun genion. —Zulo-gilleak lana azkendu eta eudiya atertu, dana bat izan zan: geren itzak donkiturik ill arren oroitzari, abiyatzen giñan biurtzera, eta eguzkia erakusten asi zan bere albiñu urrezkoak, diz-dizatuaz gure inguruko eudi tantoetan, diosaldu nayeian bezela gañera gorputz ona, koroï baten antzera

obiaren gain gañetik zeruko alde batetik bestera banaturik agertu zan uztargi¹ eder, kolore fin-dunarekiñ.

Gauz eder arrek zér senti eragiñ ziran, ez daukat itzik adierazteko, neukala nere izate guztia, an, urruti, *obiz aronz!* nere lagun batek esan zuben bezela.

¡A! Nunbait guk eraman genduben gorputz arren anima zeruetatik guri begira zeguen, edo deika, maitatu gendubelako, berak maitatu izan ginduen bezela, lur onen gañean.



Biurtzen giñan bide estu batetik errira; eudiya berriz asten zuben; baserri baten atian ageri zan jendia, eudiya atertu zai bezela irtentzeko, bañan aspertuaz nonbait eudirik atertzen etzubelako abiyatu zan jendi ura erri aldera, gure aurretik, euditan, eta non ikusten dedan, ¡batayo bat! Beriala gogoak eman ziran len esan ziguna zulo-gilleak: ¡Gorputz ona! Eta ordubanchen nere barrenak oiarzun baten gisa eranzun ziran:—eta mundura euditan jaiotzen dana ¿zér ote da?—

¡A!... Orrela dijoa gure izatea; bat joan, bestia etorri.

FRANZISKO LOPEZ ETA ALÉN.

Donostian, 1890-garren urteko agorraren 16-an.



(1) arco iris.